



Global express

Gaur egungo egoera ikasgelan

¡Viaje con nosotros... si quiere gozar!

1.

1. HERRIALDEA: IEBAKA

- Amnesty Internationalek herrialde honi buruzko txosten bat argitaratu zuen, eta polizia egoera eztabaidagarrietan egindako hilketak ugariak kritikatu zituen. Halaber, gobernuari egotzi dio immigranteen eta jatorri atzerritarreko herritarren eskubideak ez babestea, eta giza eskubideen defendatzaileen kontrako jazarpena onartzea.
- Afrika azpisaharraren ondoren, GIB/HIESAren nagusitasun-tasa handiena den gunean dago. Gobernuak onartzen du erretrobirusen kontrako tratamendua behar duten pertsonen ia % 70ek ez dutela horrelakorik jasotzen.
- Koral-arrezifeak poluituta daude, eta horrek itsasoko habitatak degradatzen ditu, eta arrain-populazioak murrizten ditu.
- Askotan pairatzen ditu urakanak; jendearen etxebizitzak suntsitzen dituzte eta ekonomian eragin negatiboa dute.
- Herritarren % 60 pobrea da, eta % 20 muturreko pobrezian bizi da. Biztanleen % 33k 14 urte baino gutxiago ditu, eta haurren heriotza-tasa milatik 36koa da.

2. HERRIALDEA: AKABEI

- Tokikoen adeitasunak, kulturak eta hondartza zoragarriek inbertitzeko edo bigarren etxebizitza erosteko leku ideal bihurtzen dute.
- 1.288 km kosta du, eta kalitate handiko hondartzak ditu nazioarteko aireportutik 10 minutura soilik. Azpiegitura osoa dute, telekomunikazioei, garraioari, saltokiei, osasunari eta segurtasunari dagokienez, eta ostalaritza- eta aisialdi-eskaintza zabala dute.
- Mendikate nagusiaren eta iparraldeko mendikatearen artean eskualde aberats bat dago. Itsasoko brisek eta ozeanoko ur-lasterrek klima tropikal euritsua baretzen dute. Goza ezazu tenperatura-baldintza ezin hobeez urte osoan.
- Bi parke natural ditu, UNESCOk gizateriaren ondare izendatu dituenak. Historiari eta kulturari dagokienez, UNESCOk munduko ondare gisa sailkatutako eraikin bereziak eta hiri kolonialak bisitatu daitezke.
- Bi musika-eritmogatik ezaguna da: merengea eta bachata. xix. mendearen erdialdean egin ziren ezagunak.

Iturria: X. Obach-en lanetik egokitua, Praxis argitaletxea, 1998.

1. Nora egingo zenuke bidaia? Zergatik?

2. Turistak edo bidaiariak?

Inoiz geure buruari galdetu diogu zerk egiten gaituen turista? Zer dakigu bisitatzeko ditugun lekuei buruz? Zer esperientzia bizitzea pentsatzen dugu? Zergatik aukeratzen dugu bidaia-mota jakin bat? Ziur denek ez dutela gauza bera espero leku ezezagun baterako ibilbidea hasten dutenean.

2. Erreparatu komiki hauei, eta esan zer iradokitzen dizun bakoitzak.



Iturria: Norte y Sur. Intermón, 1994

3. Zer ezaugarri berdin dute hirurek? Zer ikuspegi erakusten digute turista horiek bisitatzeko dituzten lekuetako herritarrei buruz?
4. Ziurrenik noizbait bidaiaren bat egingo zenuen; beraz, ongi pentsatu, eta esan ea ados zauden komikiek erakusten diguten turistaren irudiarekin. Zergatik?
5. Gogoan duzu iragarki hau? Zure ustez, zer estereotipo indartzen du?



Iturria: <http://www.litoralautentico.com/litoral.html>

6. Bateratu zure iritziak ikaskideen iritziekin, eta taldean eztabaidatu zuen ustez zergatik bidaiatzen duten pertsonak. Zuen ustez, zer desberdintasun daude bidaiari eta turista baten artean, bidaiaren helburuari eta jarrerari dagokienez?

3. Argiak eta itzalak

Turismoa da munduko industriarik handiena; automobilgintzaren eta petrolio-industriaren aurretik dago. Gainera, arma-trafikoaren ondoren, negozioarik handiena da nazioartean. 2005ean, munduko BPGren % 11 izan zen. Turismoaren Mundu Erakundearen arabera, nazioarteko bidaiarien kopurua -500 milioi 1995ean- ia 1.000 milioi izatea aurreikusten da 2010ean eta 1.600 milioi 2020an.



Turismoak milioika lagun planetako leku batetik bestera joatea eragiten du. Noski, joan-etorri horiek -askotan kontinenteetako eremu jakinetan kontzentratzen dira- eragin izugarria dute alor guztietan -ekonomian, gizartean, kulturen eta ingurumenean-, eta denek ez dute eragin hori berdinean baloratzen.

7. Talde txikitik jarririk, pentsatu turismoak zer ekarpen egin diezaikeen, positiboak nahiz negatiboak, Hegoaldeko herrialdeei. Bateratu taldeen lana, eta guztion artean egin ekarpenen zerrenda bat.

8. Zerrenda egindakoan, arretaz irakurri datu hauek:

Turismoa aberastasuna da pertsonarentzat, familiarentzat, komunitatearentzat eta mundu osoarentzat.

Iturria: Turismoaren Mundu Erakundea, 2002.

Turismoa dibisa-iturri nagusi bihurtu da garapen-maila baxueneko 49 herrialdeentzat (petrolio-industria alde batera utzita). Azken hamar urteetan haien irabaziak % 47 handitu dira; Europako Batasuneko herrialdeenak, berriz, % 7,8.

Iturria: Bidezko Turismoaren Jardunaldiak. Amparo Sancho. «Garapenerako erronka».

Turismoa baliabide naturaletan (eguzkia eta hondartzak) eta/edo kulturen oinarritzen da, eta horiek bereziki ugariak dira pobretutako herrialdeetan.

Sektore turistikoari ekiteko, beste jardueretako behar diren baina baldintza eta mantentze-lan gutxiago behar dira.

Sektore turistikoak batez ere eskulana behar du, eta eskulanak ez du hasierako trebakuntza gehiegirik behar lanpostu gehienetarako.

Turismo-leku bihurtzeak herri-lanak eta garraioa garatzeko balio du, eta hori onuragarria izan daiteke tokiko komunitateentzat.

Erabiltzen den unean kontsumitzen den zerbitzua denez, hau da, herrialdean bertan, turismoak beste ondasun eta zerbitzuen barne-eskaera eta -ekoizpena susper ditzake (adibidez, elikagaiena).

9. Goian aipatutako datuen arabera, zer abantaila izan ditzake turismoak herrialdeentzat, bereziki, herrialde pobreentzat? Egin zerrenda bat.

10. Orain, irakurri eta arretaz aztertu albiste hauek:

Turismoak Marokoko Biosfera Erreserba mehatxatzen du

Smir-eko urmaelean eta Restinga-Smir-eko hezeguneetan hiru turismogune eraikiko dituzte. Haietako bik eragin zuzena izango dute gune horietan. Ceutatik Tetuanerako kostan ez da eremu naturalik geratuko, ez da lekurik egongo hegazti migratzaileek

atseden hartu eta elikatu ahal izateko. Hondakin-urekin kostako poluzioa handitu egingo da, eta, horren ondorioz, itsasoko espezie asko desagertu egingo dira.

■ Iturria: www.turismoresponsable.net

Hamar espainiarretik batek ezagutzen du turismo sexuala egin duen norbait

UNICEFen txostenaren arabera, Espainiako gizarteak jarrera hau du bidaietan sexu-esplotazio komertziala egiteari buruz: inkestatutako % 55 eta % 34ren iritziz, ohiko eta oso ohiko fenomeno da, hurrenez hurren, pobretutako herrialdeetan haurren prostituzioa; % 21en iritziz, garatzen ari diren herrialdeetara bidaiari joaten diren espainiarren gehiengoak adin

txikikoekin sexua izatea bilatzen du; % 10ek dio ezagutzen duela adin txikikoekin sexu-abusuan inplikaturik dagoen helduren bat.

■ Iturria: Silvia Torralbaren artikulua egokituta.

Lanpostuei dagokienez, sektore turistikoa oso erakargarria da, beste sektoreek baino — nekazaritza, esaterako — soldata handiagoak eskaintzen baititu. Baina horrek gazteek landa utzi eta turismoguneen inguruko gune pobreetara joatea

bultzatzen du, hanaldi baterako eta baldintza txarretako lana bilatzeko asmotan.

■ Iturria: SARDELLA P.; LANZANOVA L. *Viaggiare a occhi aperti*. ICEI. Milan 1997.

Hegoaldeko herrietan, garapen turistikoa handitzeko azpiegiturak hobetzeko egiten dituzten herri-lan asko funts publikoekin egiten dira; osasunean, hezkuntzan edo nekazaritzan inbertitzen ez diren funts publikoekin, alegia. Horrek kalte larria eragiten die tokikoek.

Lurra galtzeak diruaren ekonomia globalean behartuta sartzea esan nahi du. Dirua da ekonomia globalak ezagutzen duen moneta bakarra. Dirurik gabe (eta lanik gabe) ez dago irteerarik, lurra eta lehengo bizimodua dagoeneko ez baitaude. Turismoak lanpostuak suntsitzen eta biztanleak lurretik urruntzen laguntzen duela esan dezakegu. Laburbilduz, turismoak biziraupen-sistemak hondatzen ditu.

■ Iturria: NOCHOLSON-LORD D. 'Viaggiatore d'Occidenti', *Internazionale*-n. 1997/10/17.

11. Zerk harritu zaituzte? Zergatik?

12. Zein dira zuen ondorioak?

13. Osatu edo aldatu 7. jardueran egin duzuen zerrenda.

4. Itsasoa edo mendia



Datu hauek gure turismo-ereduak herrialdeko leku batzuetan dituen ondorioen adibideak erakusten dituzte.

14. Taldean, irakurri turismo-azpiegiturekin lotutako datu hauek, eta aukeratu proposamen bakoitzaren ondorio nagusiak —positiboak nahiz negatiboak— adierazten dituzten esaldiak.

Elurra

Azken urteetako azterketa zientifikoek argi uzten dute klima-aldaketaren ondorioz mendiko tenperatura igotzen, elurraren batez besteko lodiera txikitzen eta innibazioaren denbora- eta lurralde-irregularitasuna handitzen ari direla pixkanaka –oraindik poliki-. Dagoeneko egiaztatuta dago efektua hori; izan ere, Pirinioetako glaziarrak txikitu egin dira 80ko hamarkadaren erdialdetik hona.

Klima-aldaketaren efektuei gehitu behar zaizkie gure mendi askotan, balio ekologiko handiko naturaguneetan, eski-estazioek eta hirigintza-proiektuek –ehunka etxebizitza, hotelak, bainuetxeak, etab.– eragiten dituzten ingurumen-kalte larriak. Estazio horiek gainera, behar –artifizial– berriak sortzen dituzte; garraio-azpiegitura berriak, zerbitzu berriak eta, bereziki, baliabide naturalen kontsumo berri eta handiak. Energia elektrikoa edo ibilgailu pribatuetan egiten diren joan-etorriak, deforestazioarekin batera, klima-aldaketaren eragile nagusiak dira.

Horren adibide da 70eko hamarkadan eraiki zen eski-estazio bat eta aldizka diru publikoaren kantitate handiak lurperatzen diren benetako zulo beltz bihurtu dena. Gailur altuetan dago, eskia daitekeen eremuaren mugan, eta hegalak iparraldeko eta ipar-mendebaldeko haize nagusien mende? ditu. Haize heze horiek, eta askotan beroek, aprobetxatu nahi den elur-estaldura hondatzen dute urtetik urtera, nahiz eta hori eragozteko elur artifizialeko hainbat kanoi erabili.

Miloi askotako inbertsioak egin dira goi-mendiko erliebe berezia hondatzeko eta dozenaka kanoi instalatzeko, baina, hala ere, azken hamarkadetako tenperatura altuek –klima-aldaketak areagotuek– elur artifiziala sortzea eta mantentzea eragozten dute. Ondorioz, etengabeko birmoldaketetan egindako inbertsio handiak –bakoitza estazioaren arazo endemiko horren behin betiko konponbide bihurtuta– haizeak eramaten ditu, eta, bide batez, elurrik eta erabiltzailerik gabeko estazioa irekita izateko urtero erabilitako dirua ere eraman egiten du.

Bestalde, inbertsio publiko horretaz abileziaz aprobetxatu dira interes pribatuak, bailarako herritik gertu dauden lursailen espekulazio urbanistikoaren kontura irabaziak lortzeko. Hiru urbanizazioen gehiegizko garapena ikusi dugu, batzuetan **paisaian** eragin handiak dituztenak, ezer egiterik gabe. Zelai heze eta basoen paisaia desagertzen ikusten dugu.

Gainera, eski-estazioari gogor eusteko eta haranaren garapen urbanistiko-turistikoaren eredia laguntzeko politika horrek ez ditu kontuan hartzen gertuko gainerako mendi inguruak.

Eski-estazioaren eskualdea modu jasanezinean garatzen den bitartean, inguruko gainerako guneez lurralde-garapeneko politiketan inbertsio publikoaren falta pairatzen dute, urtegiak eraikitzeko ez bada, noski. Eta, olio-orban baten modura, hutsune demografikoa zabaltzen da lurraldean, eta 'giza basamortuak' sortu. Eskualde horietan, aspaldi piztu ziren larrialdi-argiak: haietako bakoitzean ikastetxe bat baino ez da geratzen eta, ixteko mehatxua etengabea da ikasle faltagatik. Badago garapen-aukerarik haurrik geratzen ez den eskualde batentzat ala?

Egoera larri horretan egin beharreko galdera hau litzateke: zer gertatuko litzateke eski-estazio batean inbertitutako diru publiko guztia gainerako eskualdeetan lurralde-garapen jasangarriko politiketan banatu izan balitz? Eraitza agian hau izango zen: hondamendi ekologiko gutxiago, espekulazio-urbanizazio gutxiago, mendi inguruetan biztanle gehiago, landa-garapen jasangarri gehiago, paisaia berezi zaindu gehiago eta abar.

Iturria: Ecologistas en Acción (<http://www.ecologistasenaccion.org>).

Oporretako hiria

Nazioarteko higiezinaren aholkularitza-enpresa baten arabera, Espainiako autonomia-erkidego askotako hirigintza-legeriak –haren ondoriozko eredia zalantzan jarri du Europako Batasunak–hirigintza-sustapenen gehiegizko hazkundera lagundu du.

Haien artean aipatzekoak dira 'oporretako hirien' proiektu asko, kostako udalerririk askotan kokatutako makroubanizazio turistikoak, gehienetan. Higiezinaren sustatzaileak eta kudeatzaileak 80ko hamarkadatik ari dira lurzorua erosten, baina duela hiru urte hasi ziren higiezinaren turismogune horiek gogor ustiatzen.

Higiezinaren turismogune horiek bizkor hazten dira, eta datu ekonomiko sendoak dituzte. Gero eta apartamentu gehiago saltzen dira, gero eta turista gehiago daude hoteletan, jatetxeetan, golf-zelaietan –golf-zelai batek 100.000 biztanleko hiri batek adina ur kontsumitzen du– eta bainuetxeetan.

Higiezinaren turismogune horietako asko esleipen irregularren bitartez egin dira. Horrelako turismoguneen aurka borrokatzen diren auzotarren elkarteak, plataforma ekologistak eta haien eragina jasaten duten herritarren erakundeak gehienetan ez dira kontuan hartzen prozesu horretan.

Iturria: *Periódico Diagonal*-en 38. zenbakian agertutako artikulutik aterata.

Kirol-portua

Gure kostetan gero eta sarriago egiten dira, bete nahi duten interes publikoari dagokionez behar bezalako justifikaziorik ez duten proiektuak, eta paisaia, ingurumena eta ondare historikoa inola ere errespetatzen ez dituztenak. Horren adibide dira kirol-portuak.

Askotan, proiektu megalomanoak dira, behar ez direnak eta itsas ingurunean ingurumen-inpaktu nabarmenak dituztenak; baina, horrez gain, askotan ez datoz bat ezaugarri horietako proiektuetarako ingurumen-araudiarekin. Araudi horren arabera, kirol-portu baten proiektuak teknikoki bideragarriak diren hainbat alternatiba aurkeztu behar ditu, eta horiek Ingurumen Inpaktuaren Azterketa batean aztertu behar dira.

Lege-kontuetatik haratago, ingurumen-irizpideak eta interes publikoko irizpideak daude. Kirol-portu berriak eraikitzeak hondartzak eta landak erabat hondatzea dakar. Kirol-portuen instalazio berriak uretako jarduerak sortutako isuriak handitzen ditu. Itsas inguruak itxitakoan, barruko uren berritzea asko murrizten da, eta, horren ondorioz, urte urte handituz doan poluzioa sortzen da.

Beste alderdi garrantzitsu bat itsas hondotik ateratzen diren lohi toxikoak dira. Material horiek oso poluituta daude oso toxikoak diren metal astunekin –esaterako, merkurio, zink eta kobreakekin–, eta kudeaketa eta tratamendu berezia behar dute.

Bestetik, proiektu horietako asko ez dira bateragarriak kostaldea eta itsasaldiak babesteko guneetarako araudiekin.

Azkenik, horrelako proiektuak egitean, askotan gune publikoak galtzen dira, itsasoari kendutako toki berrietan, lokal komertzial eta biltegi berriak instalatzeko proiektuak egiten baitira, eta emakiden bitartez enpresa pribatuei ematen baitzaizkie.

Iturria: www.turismoresponsable.net

Murtziako eskualdeko kirol-portuak

Murtziako eskualdean kirol-portuen defizit handia dago. Uneko eskaerari erantzuteko 10.000 amarratze-puntu jarri behar direla kalkulatu dute. Hori horrela izanik, ezinbestekoa da portu berriak berehala eraikitzea eta lehendik dauden gehienak handitzea. Kirol- eta aisialdi-nabigazioko erabiltzaileen etengabeko eta bidezko eskaera da, eta erabiltzaile horiek egoera ekonomiko, sozial eta kultural askotako pertsonak eta familiak dira, ondasun unibertsal horretaz, itsasoaz, nabigazio bitartez gozatu baino nahi ez dutenak.

Batzuk kirol-portuak eraikitzearen kontra daude. Gai honen ikuspegi partzial bat izanik, uste dugu begiratu ere ez dietela egiten horrek dakartzan onurei eta eragin negatiboaz baino ez dutela hitz egiten. Noski, obrak dira, eta edozein azpiegitura egiten denean bezala, obrak egiten diren guneak aldatu egiten dira. Zorionez, kosta zabala dugu eta instalazio horiek leku egokietan egiteko aukera ematen digu, natura- eta hiri-inguruneak erabat errespetatuz. Kirol-portuak, bidezko eskaera sozial bati erantzuteaz gain, ekonomiarako motor bikainak eta kalitatezko lanpostuen harrobiak dira. Ekonomia-sare baten eragile gisa jarduten du, mota guztietako enpresak sortzea bultzatuz eta eskualdean lehendik daudenak indartuz. Adibidez, itsasontzien, motorren eta osagarrien eraikuntza, portuetako ekipamendua, itsasontzien salmenta eta mantentze-lanak, trebakuntza nautikoa, itsasontzien alokairuak, eta beren jardura handitzen duten beste sektore asko (ostalaritza, elektrizitatea, iturgintza, eraikuntza, etab.). Arrantza-sektoreko pertsona askorentzat bigarren jardura ere izan daiteke, eta diru-sarrerak –batzuetan ez dira seguruak –hobetzeko aukera eman dezake.

Iturria: Avelino Marín López COEceko eta Murtziako eskualdeko itsas klubetako eta kirol-portuetako elkarteko lehendakariordearen artikulutik aterata, Murtziako *La verdad digital* egunkarian argitaratua.

Bigarren etxeko turismoa

Bigarren etxeko turismoari esker, 2003an 4.500 milioi euro fakturatu ziren Espainian, Tinsa enpresaren datuen arabera. Une hauetan, Costa Blancan atzerritarren jabegoko 250.000 etxebizitza daude. Egun, Alacant, Malagarekin batera, egoiliar gehien dituen Espainiako probintzia da. Bigarren etxeko turismoaren segmentuak du turismoaren industrian hazkunde-ahalmen handiena.


Espainia turista gehien hartzen dituen munduko bigarren herrialdea da. 50 milioi bisitari hartzen ditu, eta haietatik milioi batek bere etxebizitza du. Eta adituen kalkuluen arabera, hurrengo bost urteetan Europako beste 800.000 familia berrik erosiko dute bigarren etxebizitza. Turisten etxebizitza gehien Costa Blancan, Costa del Solen eta Balear Uharteetan daude. Azken 10 urteetan % 30 igo da horien kopurua.

Iturria: *Levante. El mercantil valenciano* egunkariaren edizio digitalean argitaratutako "El turismo residencial generó 4.500 millones en 2003" artikulutik aterata.

15. Bateratu zuen lana, eta erantzun galdera honi:

Zuen ustez, zer turismo-mota da, epe luzera, gure herrialdearentzako onuragarriagoa?

5. Bidaia bat egitera goaz!



Orain, taldean, ikasturte-amaierako bidaia bat planifikatuko dugu guztion artean aukeratzen duzuen lekura. Zazpi eguneko bidaia izango da.

16. Taldeka, zehaztu bidaiako egun bakoitzeko 24 orduetarako aurreikusita dituzuen jarduera guztiak.

	GOIZEZ	ARRATSALDEZ	GAUEZ
1. EGUNA			
2. EGUNA			
3. EGUNA			
4. EGUNA			
5. EGUNA			
6. EGUNA			
7. EGUNA			



Bada *Turismorako Munduko Kode Etiko* bat Turismoaren Munduko Erakundeak 1999an onartua eta Nazio Batuen Erakundeak Batzar Nagusiak 2001ean onartua.

17. Aztertu ea goiko jarduerako bidaia turistikoaren proiektuak Turismorako Munduko Kode Etikoan jasotako alderdi hauek errespetatzen dituen. Erabaki errespetatzen dituen ala ez, eta azaldu zergatik.

ARTIKULUAK	BAI	EZ	ZERGATIK
Bisitatza goazen herrialdeko bereizgarriak, tradizioak, legeak eta osasun-ezaugarriak jakinda antolatu dugu bidaia.			
Turismoa gizabanakoa eta taldea garatzeko baliabide pribilegiatu bat dela uste dugu. Gure jardura turistikoek giza eskubideak errespetatuko eta sustatuko dituzte.			
Bidaia prestatzerakoan, ingurumena, baliabideak eta ondare naturala babestea kontuan hartu dugu. Gure bidaia 'ekoturistiko'tzat sailka dezakegu.			
Programatu ditugun jardura turistikoek ondare artistikoa, arkeologikoa eta kulturala babesten dute. Ez dute herrialdearen normalizazio (edo alienazioa) eta pobretzea laguntzen.			
Bidaiaren onurek bisitatuko ditugun eskualdeetako biztanleen bizitza-maila hobetzen lagunduko dutela eta haien beharrei erantzun dietela ziurtatu dugu.			

ARTIKULUA	BAI	EZ	ZERGATIK?
Agintarien eta turismoan espezializatutako prentsaren bitartez, bisitatzen goazen eskualdeko gatazka-egoeraz edo egon daitezkeen arriskuez informatu gara.			
Gure munduaren aberastasunak ezagutzeko eskubide pertsonala dela uste dugu turismoa, eta atsedean hartzeko eskubidea eta aisialdirako eskubidea gauzatzea.			
Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 13. artikulua araberak, turistek eta bisitariak beren herrialdean eta estatu batetik bestera mugitzeko askatasuna izango dute. Ezagutzen dugu legedi hori.			
Bada herrialde igorle eta hartzaleetako enpresen arteko lotura orekatu bat, turismoaren garapen jasagarria eta turismoaren onuren bidezko banaketa bultzatzen duena. Bidezko tratua hori eskatzen dugu gure bidaiari.			
Badakigu turismo-garapenerako eragile publiko eta pribatuak elkarlanean arituko direla printzipio horiek aplikatzen eta eraginkortasunez gauzatu daitezkeen kontrolatuko dutela.			

18. *Turismorako Munduko Kode Etikoaren* arabera bidaiari aztertu eta gero, egin bidaiaren programazioan ezinbestekoak diren hiru zuzenketa edo aldaketa, kode horren jarraibideak bete dituzan.